

**ETA  
EZ**



## **6. AKTA**

2003ko maiatzaren 22an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

LEKUA: Pasaiako Hirian eta bertako Udaletxean.

DATA: Bi mila eta hiruko maiatzak hogeita bi.

EETORRIAK: Joseba Xabier Portugal Arteaga eta Rikardo del Pozo Gil de Albornoz.

Lehendakaria: Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jauna.

Lehenengo deialdian bildu dira Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren lehendakaritzapean goian aipatu zinegotziak, Aingeru Ezkerra Andueza funtzioz Idazkaria bertan delarik, horretarako egindako deialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko. Ez dute agertu ezin etorria Anjel Ouviaña Vidal eta Obdu Lorenzo de Dios jaun-andreak.

Lehendakaritzak konstataturik Gobernu Batzordea legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 18:00etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekinez.

### **1.- Aurreko batzarraldiko akta, 5.a, 03-04-29koa, irakurri eta onartzea.**

Bertakoen kontsiderazioan jarriarik atalburuan aipatzen den akta, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez erabaki du ontzat eman eta dagokion Akta-liburuan transkribatzea.

### **OGASUNA**

#### **2.- 4/03 zka. daraman kontu-fakturen erlazioa.**

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea 4/03 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda EHUN ETA LAUROGEITA HAMAHIRU MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA BAT EURO ETA BERROGEITA BI ZENTIMOKOA (193.981,42 euro).

### **KONTRATAZIOA**

### **3.- “Paseo de Puntas urbanizatzea” obraren 1. ziurtagiria”. Pasai Donibane.**

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka: 1.

Obra: “Paseo de Puntas urbanizatzea”. Pasai Donibane.

Obra-zuzendariak: INGENIERÍA ASMATU- Mikel Galarraga Ezponda (I.T.O.P) eta Joan Karlos Lapazarán Izargain (Arkitektoa) jaunak.

CONSTRUCCIONES DUMBOA S.A.enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HIRUROGEITA BOST MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA BOST EURO ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (65.945,77 euro).

D-2394/02 Disposamenduaren kargura.

### **4.- “Pasai Antxoko Azoka berrabiltzea” obraren 5. ziurtagiria.**

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka. 5.

Obra: “Pasai Antxoko Azoka berrabiltzea”.

Obra-zuzendariak: Joan Kruz Altuna, Eduardo Montoya eta Jaime Vergel jaunak.  
ERAILAN, S.A. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: LAUREHUN ETA HOGEITA HAMAR MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAR EURO ETA LAUROGEITA HAMALAU ZENTIMO (430.332,94 euro).

A-2355/02, A-2356/02 eta 2360/02 Baimenduaren kargura.

## **GIZARTE ZERBITZUAK**

### **5.- Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoetan modifikazioak.**

**ETA  
EZ**



Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2003ko maiatzaren 7 eta 14an aurkeztutako proposamenak, Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoen Laguntzetan modifikazioak direla eta, 1/03 zka. daraman proposamenari buruzkoak, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

## ERABAKI DU

LEHENENGO.- Espedientean agertzen diren onuradunen 1/03 zka. daraman proposamenari dagozkion Laguntzak modifikatzea, azaltzen diren arrazoen arabera, beroietan agertzen diren kantitateak anulatuz.

BIGARREN.- Aipatu zenbatekoak Gizarte Larrialdiaren partidara pasa daitezela.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontuhartzailtza Departamenduari jakitera ematea.

### **6.- Jubilatuen Etxeei subentzioa.**

Gizarte Zerbitzuen Udal Batzorde Informatiboak 2003ko maiatzaren 14an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

## ERABAKI DU

LEHENENGO.- Aipatzen diren “Jubilatuen Etxeei” 04.481.456.10.03 “Jubilatuen Etxeak Subentzioak” partidari esleitutako subentzioak abonatzea guztira 42.167,26 euro aurkeztutako memoriaren arabera:

- AITONEN ATERPEA –Pasai Donibane-	7.480,00 Euros
- ZAHARREN BILTOKIA –Pasai San Pedro-	8.878,68 Euros
- ZAHARREN BILTOKIA – Pasai Antxo-	13.211,07 Euro
- HOGAR DEL JUBILADO – Trintxerpe-	12.688,51 Euro

Emandako subentzio osoaren %50aren pagua behin akordioa hartu eta gero egingo da eta beste erdia azaroan ekitaldi honen barruan aurrez memoria eta gastuak aurkezturik.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioak seinalatuz.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-463/03 Baimenduaren kargura.

### **7.- Banintz Elkarteari subentzioak.**

Gizarte Zerbitzuen Udal Batzorde Informatiboak 2003ko maiatzaren 12an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Banintz Elkarteari 3.005 euroko subentzioa ematea, elkarte honek Migrazio eta Herri Minorizatuari buruz bultzatutako Multikulturalitate, Demokrazia eta Garaipeneango Ekimen eta Dokumentazio zentroko proiektuari aurre egin ahal izateko.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari jakitera ematea legozkiokeen errekurtsoekin.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko 04-481-313-50-03 partidaren eta A-466/03 Baimenduaren kargura.

### **8.- Preinca Elkarteari subentzioa.**

Gizarte Zerbitzuen Udal Batzorde Informatiboak 2003ko maiatzaren 13an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- PREINKA Pasaitar Elkargoari 836,00 euroko subentzioa ematea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari jakitera ematea legozkiokeen errekurtsoekin.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko 04-481-456-10-03 partidaren eta A-465/03 Baimenduaren kargura.

### **9.- M<sup>a</sup> Pilar Izquierdo Haurtzaindegiari subentzioa.**

Gizarte Zerbitzuen Udal Batzorde Informatiboak 2003ko maiatzaren 13an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

**ETA  
EZ**



LEHENENGO.- “Pilar Izquierdo” hartzaindegiari 901,52 euro abonatzea Mozanbikeko Nacalako komunitatearentzat “Garapen Kooperazio Programa” pleitatu ahal izateko.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari jakitera ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko 04-481-313-50-02 partidaren eta A-464/03 Baimenduaren kargura.

## **GAZTERIA**

### **10.- “A Pabela Productions”-i subentzia.**

Gazteria eta Kirolen Udal Batzorde Informatiboak 2003ko maiatzaren 9an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- A PABELA PRODUCTIONS gazte taldeari 2.510 euroko subentzia ematea 2003 martxoa – 2004 martxoa Video Club proiekturako.

Subentzia bi epetan abonatzea:

- %60 akordioa hartu eta gero.
- %40 abenduaren azkenean.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari jakitera ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko 07-481-456-20-01 partidaren eta A-460/03 Baimenduaren kargura.

Gaizerrendatik at eta aurrez zinegotziek aho batez erabakirik gaizerrendan sartzea, hurrengo akordioak hartu dira.

### **11.- “Procivil” Pasaiako Babes Zibileko Bolondresen Elkargoari subentzia.**

Udaltzaingoko Zinegotzi Delegatuak 2003ko maiatzaren 20an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

## ERABAKI DU

LEHENENGO.- “Procivil” Pasaiako Babes Zibileko Bolondresen Elkargoari 600,01 euroko subentzioa ematea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari jakitera ematea legozkiokeen errekurtsoekin.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko 03.226.222.10.99 partidaren eta 476/03 Baimenduaren kargura.

### **12.- Inauteri eta Herriko Jaietako gastuentzat aurrerakina.**

2003ko maiatzaren 20ko Alkate jaunaren proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez erabaki du barruti bakoitzeko Jai Batzordeari ondoren aipatzen diren kantitateak ematea Inauteriak eta Herriko Jaiak antolatzeko:

- SAN PEDROKO JAI BATZORDEA	27.820 euro.
- P. DONIBANEKO JAI BATZORDEA	27.235 euro.
- P. ANTXOKO JAI BATZORDEA	39.420 euro.
- TRINTXERPEKO JAI BATZORDEA	34.520 euro.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-518/03 Baimenduaren kargura.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 19:00etan, batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.